Gaur egun, zuzkidura arloko beharrizanak oso ezberdinak dira, horrexegatik, plangintza orokor bat behar dugu eraikigarritasun mailak eta zuzkidura-mailak egokitzeko.

* **Landabidea Aranburu jaunak (Bildu)**: Mozioak oso ondo laburbiltzen du, herri planeamenduari dagokionez, gaur durangorrok bizi dugun errealitatea.

2005ean onartutako Arau subsidiarioak ditugu oraindik indarrean, alegia, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean desagertzera bideratuta dagoen planeamendu eredu bat du gaur Durangok. Printzipioz Arau subsidiarioak 8 urterako onartzen ziren, eta zortzi urte hauetan hurrengo zortzi urteak planifikatzen lan egiten zen.

Durangon ordea, ez da horrelakorik egin. Ez zarete lanean egon eta gaur behin betiko onarpenetik 10 urte pasa direnean, HAPO berriaren erredakzio prozesua noiz hasiko zain gaude.

Uste dugu, hau ez dela bakarrik alferkeria kontu bat, ezta utzikeria kontu bat, guzti honen atzean hiri-antolamendu prozesua atzeratzeko ahaleginak daude. Badirudi, udal gobernu honek ez duela HAPO berria egiteko inongo interesik.

ción anterior. Las normas subsidiarias de Durango provienen del 2005, y fueron diseñadas y adecuadas en arreglo a unas leyes y unas necesidades muy diferentes a las actuales.

Actualmente las posibilidades de la ciudadanía son otras. La vivienda en propiedad ya no es una opción muy viable y lo que se demanda son viviendas en alquiler. Actualmente las leyes vigentes también son diferentes, han cambiado los máximos y mínimos en edificabilidad y se priman otra serie de medidas en las unidades de ejecución. Estamos a favor de esta moción.

El único punto que nos genera un poco de duda es el primero: porque no sabemos si incurrimos en algún perjuicio, por lo que proponemos votarlo punto a punto. Estamos totalmente de acuerdo con los puntos dos y tres, de hecho venimos reclamando un plan general de ordenación urbana nuevo para Durango que se adecue a las necesidades de las personas y del municipio.

Actualmente las necesidades dotacionales son muy distintas y necesitamos un plan general que se adecue en niveles de edificabilidad y en niveles dotacionales.

* Concejal **Sr. Landabidea Aranburu (Bildu)**: La moción refleja muy bien la realidad que vivimos los durangueses y duranguesas en cuanto al planeamiento municipal.

Todavía siguen en vigor las NN.SS aprobadas en 2005. Es decir, Durango cuenta con un modelo de planeamiento que tiende a desaparecer en el Plan General de Ordenamiento Urbano. En principio, las NN.SS se aprobaban para 8 años, y en esos 8 años se trabajaba en la planificación de los siguientes 8 años.

Pero en Durango no se ha hecho así. No habéis trabajado en la planificación de los años venideros, y, transcurridos 10 años de la aprobación de las NN.SS, estamos a la espera del proceso de redacción del PGOU.

Y no se trata solo de holgazanería, hay también un punto de dejadez, pues observamos un esfuerzo por atrasar el proceso de revisión del ordenamiento urbanístico. Da la sensación de que el Equipo de Gobierno no tiene interés alguno en diseñar el nuevo PGOU.

Arrazoi zehatzak ez ditugu ezagutzen, baina badirudi konturatu zaretela jada birkalifikazioek ez dutela lehen ematen zuten dirutza ematen. Birkalifikazioen helburua etxe berriak egitea izan da eta gaur hau ez da posible.

PNVko Gobernuek, betidanik, hirigintza udalaren diru-iturri bezala ikusi duzue, etxeak egin eta egin aritzen zineten udaleko kutxak diruz betez. Gure eredua ordea, hirigintza, herriaren garapenaren mesedetara jartzea izan da betidanik.

Horregatik proposatu genuen, HAPOren berrazterketa hasi aurretik, aurretiazko diagnostikorako prozesu parte hartzaile bat martxan jartzea. Proposamenak osoko bilkuraren onarpena izan zuen duela bi urte eta, besteak beste, 65.000 euroko diru partida erabiliko zela onartu genuen.

Baina prozesu honek trabak baino ez ditu jaso: azken atzerapena udal honek sorrarazi du, izan ere, irailaz geroztik zain egon gara Udalak zer erantzungo zion Euskal Herriko arkitektoen elkargo ofizialak (COAVN) udalak aurkeztutako pleguari jarri zion helegitearen inguruan. Duela bi aste eman ziguten honen berri Hirigintza batzordean, berria jakin eta ia urte erdira. Argi utzi duzue zuen gobernuarentzat herri planeamendua ez dela lehentasunezko gaia.

Parte hartzea da herritarren beharrizanak ezagutzeko dugun erreminta zuzenena. Horregatik durangarren artean parte hartzea bultzatzearen aldekoak gara. Baina parte hartze prozesuetan hartzen diren erabakiak lotesleak izan behar dira, bestela herritarrei iruzur egiten ariko gara.

Honi lotuta doa mozioaren bigarren puntua, izan ere, gu udalean sartu garenetik, faltan bota dugu Udal plangintzako aholku batzordea. Existitu beharko litzatekeela gogoratu nahi dugu, baina egun batzordea nortzuk osatzen duten ere ez dakigu. Hasiera puntu bat izango da batzorde hau batzea.

Bestalde, azterketa sozial, ekonomiko eta demografiko bat behar dugu. Erabakiak hartu aurretik datuak behar ditugu: datu zehatzak eta berrituak behar ditugu. Datu hauek, bere garaian izan zeni-

Desconocemos los motivos exactos, pero parece que os habéis dado cuenta que las recalificaciones no aportan el dineral que hasta hace poco aportaban. La razón de ser de las recalificaciones no era otro que la construcción de nuevas viviendas, pero esto en la actualidad es imposible.

Los gobiernos del PNV conciben el urbanismo como fuente de ingresos para el municipio. No habéis hecho otra cosa que construir vivienda con la idea de llenar las arcas municipales. Nuestro modelo, por el contrario, consiste en poner el área urbanística al servicio del desarrollo del municipio.

Por ello propusimos, antes de la revisión del PGOU, la puesta en marcha de un proceso participativo orientado a la elaboración del diagnóstico previo. La propuesta contó con la aprobación del pleno municipal hace 2 años y, así mismo, se aprobó una partida presupuestaria de 65.000 euros.

Pero dicho proceso se ha visto salpicado de obstáculos: el último retraso lo ha provocado el Ayuntamiento, puesto que estamos desde septiembre a la espera de la respuesta que el Ayuntamiento debe dar al Colegio Oficial de Arquitectos del País Vasco en relación al recurso interpuesto por este al pliego presentado por el Ayuntamiento. Nos lo comunicaron hace dos semanas en la comisión de urbanismo, año y medio después de conocer la noticia. El gobierno municipal ha dejado claro que el planeamiento urbanístico no es una de sus prioridades.

El modelo participativo es fundamental para conocer las necesidades de la ciudadanía. Es por ello que fomentamos la participación de los durangueses/as. Pero pensamos también que los acuerdos adoptados en estos proceso participativos deben se vinculantes, puesto que si no estamos engañando a la gente.

Y el punto segundo de la moción va en esta dirección, puesto que desde que entramos en la corporación echamos en falta la comisión asesora de planeamiento urbanístico. Es más, desconocemos hasta el nombre de los representantes de la comisión. Solicitamos que se reúna dicha comisión.

Por otro lado, es necesario realizar un estudio social, económico y demográfico. Necesitamos de datos antes de tomar las decisiones: datos precisos y actualizados. Seguro que dichos

tuztenekin alderatuz gero, ziur gaude oso ezberdinak direla, egoera ekonomikoa zeharo ezberdina baita, azken baten, gaurko gizarteak beste beharrizan batzuk ditu.

Lanean hasi nahi baduzue, badakizue nondik hasi ahal zareten.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Esandakoak entzunda esan beharra dago ez dagoela gaurko egunean inolako txostenik Kabilduoste proiektuaren aldekoa denik. Batzordean orain dela bi aste azaldu zen proiektua, eta hori da mahai gainean dagoena. Bestalde, txosten bat egon badago, eta kontrakoa gainera, alegia, Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako lehenengo mozioaren ingurukoa. Horrek bai daukala kontrako txosten bat, ilegaltasun baten barruan arituko ginela esaten duen txostena hain zuzen ere.

Bestalde, gaurko mozioa dela eta, EAJk ere zalantzak ditu, hain zuzen ere Alderdi Sozialistak aipatutako puntu berberean. Horrexegatik eskatzen dugu mozioa atzera botatzea eta dagokion teknikariak egin dezala dagokion txostena jakin dezagun zeintzuk izan daitezkeen mozioa onartzeak izan ditzakeen ondorio juridikoak edo zibilak. Guk ezin diogu aldeko bozka eman ez badakigu zein ondorio zibil izan ditzakegun hori aurrera eramanda.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Esku artean daukat udal arkitektoak sinatutako txostena, abenduaren 3koa, eta proposamenean hurrengoa jasotzen du: "*Informar favorablemente de la posibilidad de tramitar un plan especial de ordenación urbana en la unidad de ejecución UE-17*". Beraz badago gure zerbitzu teknikoak egindako txosten bat, gaur egun, 2015ean, Durangon 12 txalet egiteko aldeko iritzia ematen duen txostena.

Hemengo eztabaida politikoa da. Horrexegatik, galdera pare bat luzatuko dizkiot PNVri: Onargarria da PNVrentzat duela 10 urte onartutako arau subsidiarioak eta bertan jasotako plangintza urbanistikoa aurrera eramatea egun bizi dugun testuinguru sozioekonomikoan? Uste duzue gaur egun dauzkagun arau subsidiarioek erantzuna ematen dietela herritarren beharrizanei?

datos serán bien distintos a los que manejasteis hace algunos años, puesto que la realidad económica era bien distinta y porque, a fin de cuentas, la sociedad actual tiene otras necesidades.

Si tenéis ganas de empezar a trabajar, ya sabéis por dónde podéis empezar.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: En primer lugar, debo decir que, a día de hoy, no hay ningún informe favorable al proyecto Kabilduoste. El proyecto fue presentado en Comisión hace dos semanas, y es eso lo que está sobre la mesa. No obstante, sí existe un informe, y es contrario: el relativo a la primera moción presentada por Bildu y Aralar. Es un informe negativo, en el que se indica que incurriríamos en ilegalidad.

Por otro lado, y en relación a la moción que nos ocupa en el día de hoy, el PNV tiene las mismas dudas que las mencionadas por la representante del Partido Socialista en relación al punto primero de la moción. Es por ello que solicitamos que se retire la moción y que el técnico correspondiente realice el pertinente informe con el objeto de conocer las consecuencias jurídicas y civiles que pueden suponer la aprobación de la moción. No podemos votar a favor de la moción sin saber los efectos que dicha aprobación nos puede acarrear.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Tengo aquí el informe firmado por el arquitecto municipal el 3 de diciembre, y dice lo siguiente: "*Informar favorablemente de la posibilidad de tramitar un plan especial de ordenación urbana en la unidad de ejecución UE-17*". Por lo tanto, existe un informe realizado por nuestro servicio técnico en relación a la edificación de 12 chalets a día de hoy, esto es, en Durango año 2015, y el informe es favorable.

El debate en cuestión es político, y en este sentido haré un par de preguntas al PNV: ¿Os parece aceptable que un plan urbanístico recogido en unas Normas de hace 10 años se llevé a cabo en el contexto socio-económico en el que vivimos? ¿Creéis que las normas subsidiarias en vigor responden a las necesidades de la ciudadanía?

Gaur albiste bat agertu da egunkari baten, San Rokeko promozio bateko hainbat etxebizitza eman barik daudela: "Visesa sigue sin dar salida de VPO sin sortear en Durango". Kontua ez da etxebizitzen kantitatea, etxebizitzen prezioa baizik.

Beraz, hemen daukaguna da eztabaida politiko bat eta aukera daukagu errakuntza hori gelditzeko, aukera daukagu arau subsidiarioak konpontzeko eta horretarako lehenengo erabaki bat hartu behar dugu, eta erabaki hori ez da eraikigarritasuna igo edo murrizten duen plangintzaren bat onartzea.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Bilduko bozeramaileak zalantzan jarri du nik mozioa irakurri ote dudan, eta azalduko diot. Osoko bilkurako dokumentazioa ostiralean jaso nuen, eta dena irakurri nuen, mozioa barne. Bozeramaileen Batzordean, atzo, txosten juridikoa helarazi zitzaigun, eta osorik irakurri nuen. Eta gaur, 16:30etan eta epez kanpo, ordezko mozio bat aurkeztu da, eta hau ere irakurri egin dut.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Lehen esan dudan moduan, ez dakigu ziur lehenengo puntuak eraginik izan ote dezakeen antolamendu juridikoari dagokionez. Ez dakigu kalteak sorraraz ditzakeen, eta horrexegatik eskatu dugu banan-banan bozkatzea, eta jakin nahi dugu mozioa aurkeztu dutenek onartzen ote duten proposamena.

Lehenengo puntuan abstenitu egingo gara, baina bigarrenaren alde bozkatuko dugu, uste baitugu ordua dela gobernu-taldea lanean hasi dadila lehenbailehen. Durangok hiri-antolamendu plan orokorra behar du. Ezin dugu duela 15 urteko etxebizitza-merkatuan bizitzen jarraitu. Aralarreko bozeramaileak esan duen moduan, Visesako 29ko etxebizitza dauzkagu aspalditik esleitu barik. Legebiltzarrean proposatu dugu jabetzapean esleitu barik urtebete baino gehiago daramaten etxebizitzak alokairuan esleitu daitezela, horixe baita herritarrek eskatzen dutena.

* **Landabidea Aranburu jaunak (Bildu)**: Erantzutearren bakarrik. Gastañazatorre jaunak esan du mozio guztiak irakurtzen dituela, eta bere lehenengo interbentzioa izan da txosten bat

Esta mañana he leido una noticia en la que se decía que en San Roke no se han entregado muchas de las viviendas en promoción: "Visesa sigue sin dar salida de VPO sin sortear en Durango". Pero la cuestión no reside en la cantidad de viviendas, sino en el precio de éstas.

Como he señalado antes, se trata de un debate político, y tenemos la posibilidad de subsanar el error cometido: tenemos la oportunidad de revisar las NN.SS y para ello tenemos que tomar una decisión, una decisión que vaya más allá de aprobar un planeamiento que recoja el aumento o disminución de la edificabilidad.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: En este punto el Portavoz de Bildu ha puesto en duda de si yo había leído la moción y se lo voy a aclarar. Cuando el viernes recibí la convocatoria de pleno leí todo, también esta moción. Cuando ayer mismo en Junta de Portavoces se nos facilitó el informe jurídico lo leí entero y cuando hoy a las 16:30 de la tarde y fuera de plazo se presenta una alternativa a la moción presentada inicialmente la he leído de nuevo.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: Voy a repetir lo manifestado anteriormente. El primer punto no sabemos si contraviene el ordenamiento jurídico y no sabemos si causa daños y prejuicios por lo que pedimos que se vote punto por punto. Queremos saber si los firmantes de la moción aceptan lo solicitado por nosotros.

En el primer punto nos vamos a abstener, pero seguimos diciendo que vamos a votar a favor del segundo porque es necesario que este Equipo de Gobierno se ponga a trabajar ya. Durango necesita un plan general de ordenación urbana. No podemos seguir viviendo en el mercado de vivienda de hace quince años. Como bien ha dicho Aralar, tenemos 29 pisos de Visesa sin adjudicar desde hace meses. Hemos propuesto en el Parlamento que los pisos que lleven más de un año sin adjudicarse en propiedad se adjudiquen en alquiler, que es lo que demandan los ciudadanos y ciudadanas.

* Concejal **Sr. Landabidea Aranburu (Bildu)**: Sólo por responder. El Sr. Gastañazatorre ha comentado que suele leer todas las mociones, y en su primera intervención ha señalado que

dagoela kontra. Gaur mahai honetara ekarri dugun mozioa ez da ostegunean erregistratutako mozioa. Berak irakurri duen txosten negatibo hori da ostegunean erregistratutako mozioaren ingurukoa. Gaur hemen aurkeztutakoaren inguruan ez dago inolako txosten negatiborik.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (Bildu)**: Nik neure Taldearen izenean erantzungo dut. Lehenengo eta behin, Bilduko Bozeramaileari. Zelan egongo da txosten juridiko bat mozio honen kontra edo alde ordu bat eta erdi baino izan ez dugunean irakurtzeko? Aralarri esan behar diot: Onargarria da mozio hau hona ekartzea batzordetik pasatu barik? Onargarria da 12 txalet horietako promotore edo jabeek jadanik euren esku dauzkaten eskubideak horiek guztiak ordaindu behar izatea, hau onartuz gero? Prest gaude erantzukizun hori gure gain hartzeko? Beraz, hemen dagoen eztabaida politiko eta teknikoa da; uste dut eztabaida teknikoak oso ondo argitzen direla batzordean, bere lekuan, eta gero beharbada, osoko bilkuran.

Visesaren albiste hori neuk ere irakurri dut, eta informatu egin naiz, eta oraindik deitzen dabiltza adjudikazio zuzena daukaten pertsonei.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Batzordea bezain foro baliagarria da osoko bilkura hau. Zuek ez duzue zuen jarrera aldatuko ez batzordean ezta Osoko Bilkuran ere, oso argi daukazuelako zergatik egin zenituzten 2005ean arau subsidiario horiek, eta zergatik ahalbideratu zenuten Eguzkitzan, Artabillan eta Kabilduosten txaletak egitea, eta norentzat eta noren eskariz. Beraz, zuen iritzia berdina izango litzateke batzordean edo Osoko Bilkuran. Ez zaudetelako herritarren nahiak betetzeko, interes ekonomiko partikular batzuen mende baizik, eta horrela egin zenituzten arau subsidiarioak, eta horrela jarraitu nahi duzue.

Zergatik 2013an eginda egon behar ziren arau subsidiarioak jarraitzen dute egin barik? Zergatik daramagu bi urte diagnostiko parte-hartzaile bat kontratatzeko? Nik uste dut saihestu nahi duzuena dela sakonean dagoen eztabaida politikoa.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozkatu egingo dugu puntuz puntu.

había un informe negativo. La moción que hemos traído hoy no es la moción registrada el jueves. El informe negativo que apunta se refiere a la moción registrada el jueves. No hay ningún informe negativo sobre la moción presentada hoy.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Responderé en nombre de mi Grupo. En primer lugar, al Portavoz de Bildu. ¿Cómo va a haber un informe jurídico en contra o a favor de esta moción cuando hemos tenido solamente una hora y media para leerla? Y a Aralar, debo decirle: ¿es admisible que, en caso de aceptar esta moción, los promotores y los dueños de esos chalets tengan que pagar por los derechos ya adquiridos? ¿Estamos dispuestos a asumir esa responsabilidad? Por tanto, este debate es tanto político como técnico, y opino que los debates técnicos se aclaran muy bien en las comisiones, donde corresponde, y después, a lo mejor, en el pleno.

Yo también he leído la noticia de Visesa, y por lo que me he informado, todavía están llamando a las personas que tenían adjudicación directa.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Este pleno es un foro tan válido como la comisión. Vosotros no cambiaréis vuestra actitud ni en la comisión, ni en el pleno, porque tenéis muy claro por qué elaborasteis esas normas subsidiarias en 2005 y por qué permitisteis que se construyeran en Eguzkitza, Artabilla y Kabilduoste los chalets, y también para quién y a petición de quién. Por tanto, vuestra opinión sería la misma en la comisión o en el pleno; puesto que no estáis para cumplir los deseos de la ciudadanía, si no, bajo unos intereses económicos particulares, y así elaborasteis las normas subsidiarias, y así queréis seguir.

¿Por que a día de hoy no están realizadas las normas subsidiarias que debían estar modificadas en 2013? ¿Por qué llevamos 2 años esperando a que se contrate un diagnóstico participativo? En mi opinión, porque queréis evitar el debate que subyace en el fondo.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Votaremos punto por punto.

***1 puntua***.- *2/2006 lurzoru eta hirigintza Euskal legearen, bigarren xedapen iragankorrean jasota dagoena jarraituz, indarrean dauden arau subsidiarioak ezarritako hirigintza-eraikigarritasuna gehitzea edo murriztea dakartzaten plangintzak ez direla modu autonomoan onartuko, plangintzaren egitura-antolamendua berrikusi gabe.*

- Aldeko botoak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BI, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN.**

***Punto 1***.- *A tenor de lo establecido en la segunda disposición transitoria de la Ley 2/2206 de Suelo y Urbanismo, no se aprobarán de manera autónoma planeamientos que supongan ampliaciónes o reducciones la edificabilidad urbanística determinada en las normas subsidiarias en vigor mientras no se lleve a cabo la revisión de la estructura de ordenación del planeamiento.*

- Votos a favor: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.
- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.
- Abstenciones: DOS, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADO.**

***2 puntua***.- *Ahalik eta arinen, udal-plangintzako aholku batzordea deitzea eta bertan udal hiri plangintzaren egoera aztertu. Indarrean dauden arau subsidiarioen garapen maila eta garatu barik dauden lurzoruen egoera aztertuz- Azterketa hori egiten den bitartean, udalak ez du plangintzaren garapenik onartuko.*

- Aldeko botoak: HAMAR, 6 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Enpatea daukagu, beraz berriz bozkatu behar dugu.

- Aldeko botoak: HAMAR, 6 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.

***Punto 2***.- *Que se convoque cuanto antes la comisión asesora de planeamiento municipal y que se estudie en la misma la situación del planeamiento urbano municipal, estudiando a su vez el grado de desarrollo de las normas subsidiarias en vigor y la situación de los suelos que no están desarrollados. Durante el tiempo que se precise para la realización del estudio, el Ayuntamiento no aprobará desarrollo alguno del planeamiento.*

- Votos a favor: DIEZ, 6 de Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hay un empate, por lo que votaremos de nuevo.

- Votos a favor: DIEZ, 6 de Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.

- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.

- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

**EZ DA ONARTZEN**, Alkatearen kalitateko botoaz.

**3. Puntua**.- *Hurrengo 15 egunetan zehar, udal-plangintzaren diagnostiko parte-hartzailea egiteko beharrezkoak diren izapide administratibo martxan jarriko ditu, diagnostikoa egiteko beharrezkoa den kontratazioa ahalik eta arinen abiarazteko asmoarekin*."

- Aldeko botoak: HAMAR, 6 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.

- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.

- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz ere enpatea 2. Bozketa egingo dugu.

- Aldeko botoak: HAMAR, 6 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.

- Kontrako botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.

- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

**EZ DA ONARTZEN**, Alkatearen kalitateko botoaz.

- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.

- Abstenciones: NINGUNA.

Quedando **RECHAZADO** con el voto de calidad de la Alcaldesa.

***Punto 3***.- *En los próximos 15 días se pondrán en marcha los expedientes administrativos necesarios para la realización del diagnóstico participativo del planeamiento municipal, con el fin de que se lleve a cabo cuanto antes la contratación que se precisa para la realización del diagnóstico."*

- Votos a favor: DIEZ, 6 de Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.

- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.

- Abstenciones: NINGUNA.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hay otro empate. Votaremos por segunda vez.

- Votos a favor: DIEZ, 6 de Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.

- Votos en contra: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.

- Abstenciones: NINGUNA.

Quedando **RECHAZADO** con el voto de calidad de la Alcaldesa.

## SEI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.

- **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Dirudienez, batzordeetatik pasatzen ez diren gauza bakarrak ez dira EHBilduren proposamenak. Badaude beste gauza batzuk ere, Alkate andrearen dekretuz onartzen direnak, batzordetik pasatu barik. Abenduaren 19an, Alkate andreak dekretu bat sinatu zuen geldikinak bideratuz diru-partida konkretu batzuetara, besteak beste, "Tabirako belar artifiziala ordezkatzea, futbol zelaia, 218.942,89 euro." Beste zelai batzuetan belar artifiziala aldatu egin da, eta ez dugu zalantzan jartzen hau beharrezkoa den edoa ez. Bakarrik dakigu Culturalak eskatu zuela, eta, zuzenean, Alkate andreak dekretu bat sinatu duela; beraz, jakin nahi dugu txostenen bat edo espedienteren bat egin den hau ahalbidetzeko, zein den dagoen informazioa eta berau eskuragarri izatea.

  Bestalde, eskaera bat. Agian, nire errua izango da beti txarto pentsatzen dudalako, baina txarto pentsatzen hasita, pentsatu ahal dut batzuk tramite guztiak jarraitu behar dituztela eskaera bat egiten dutenean, eta beste batzuk, bulego zuzena dutela Batzokian, eta bertan nahi dituzten gauzak lortzen dituztela dekretuz. Beraz, horrela ez pentsatzeko eta nire errekuntzatik ateratzeko, eskatzen diot Alkate andreari, hurrengo batean, informazio guztia ematea dekretu bat sinatu baino lehen.

  Galdera bat. Kontuan izanik kontu orokorra momentu honetan onartu barik dagoela, ez dakit erantzukizunez jokatzea den hori onartu barik dagoenean geldikin guztia gastatzea eta dekretu bidez egitea. Nire kontuak oker ez badaude, dekretu bidez erabili daitekeen soberakina ohiko baliabideen %5 da; beraz, zuen kontuen arabera, 1.300.000 euro baino apur bat gehiago izango litzateke hori, eta honezkero, 1.200.000 euro inguru gastatu dituzue dekretu bidez. Zer gertatuko litzateke kontu orokorra onartuko ez balitz? Zer gertatuko litzateke soberakina txarto kalkulatuta balego?

  Beste galdera bat. Aurreko Osoko Bilkuran, besteak beste, eskatu genion Alkate andreari batzar bat deitzea Durango-Gasteiz lotzen duen autobusaren inguruan; gehienbat, alega-

## SEIS.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

- Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Al parecer, las propuestas de Bildu no son las únicas que no pasan por comisión. Hay varios asuntos que se aprueban mediante Decreto de Alcaldía, sin pasar por comisión. El 19 de diciembre, la Alcaldesa firmó un decreto para derivar los remanentes a ciertas partidas económicas, entre otros, "sustitución de hierba artificial en Tabira, campo de futbol, 218.942,89 euros." Se ha cambiado la hierba artificial en otros campos, y no dudamos que sea necesario. Sólo sabemos que lo pidió la Cultural, y, directamente, la Alcaldesa firmó un decreto. Por tanto, nos gustaría saber si existe algún expediente o informe para hacerlo posible, si hay información sobre el tema, y si la hay, tenerla disponible.

  Por otro lado, tengo una petición. A lo mejor es culpa mía, porque siempre pienso mal, pero puestos a pensar mal, puedo pensar que algunos deben cumplir con todos los trámites para realizar una solicitud, y otros, en cambio, tienen línea directa en el Batzoki, y allí consiguen las cosas mediante decreto. Por lo cual, le pido a la Alcaldesa que, para que no vuelva a equivocarme una vez más, la próxima vez, nos dé toda la información antes de firmar un decreto.

  Y tengo una pregunta. Teniendo en cuenta que hoy por hoy las cuentas generales no han sido aprobadas, no sé si gastar todo el remanente y hacerlo mediante decreto sería actuar con responsabilidad. Si mis cálculos son correctos, el remanente que se puede utilizar mediante decreto es el 5% de los recursos ordinarios; es decir, según vuestros cálculos, algo más de 1.300.000 euros, y ya habéis gastado alrededor de 1.200.00 euros mediante decreto. ¿Que sucedería si no se aprobasen las cuentas generales? ¿Que sucedería si hubiera algún error en el cálculo del remanente?

  Tengo otra pregunta. En el último pleno, le pedimos a la Alcaldesa que convocara una reunión para tratar el tema de la línea Durango-Gasteiz; más que nada, porque ya ha finalizado el plazo para la presentación de

zioak egiteko epea bukatuta dagoelako eta esleipena egingo zela pentsatzen genuelako. Nolanahi ere, oraindik ez da esleipenik egin, baina jakin nahi dugu ea beharrezkoak diren tramite guztiak eginda dauden.

Jakin nahi dugu, Kirolene dela-eta, ea harremanetan jarri zareten edo ez Eusko Jaurlaritzarekin, Kirolenerekin, eta legealdia bukatu baino lehen ea aukera daukagun Kiroleneri eraikuntza eskaintzeko.

- **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Kontu orokorra, bere egunean, ez zen onartu, kanpo txostena eskatu zelako. Gogoratu nahi dut txosten horren zain gaudela.

  - Behin baino gehiagotan eskatu dugu udal honen egoera ekonomiko erreala ezagutzeko jardunaldi ireki batzuk egitea, herritarrei begira.

  - Durango-Gasteiz linearen erabiltzaile gehienak durangarrak direla ikusita, orain dela hilabete batzuk antolatu zen moduko bilera bat antolatzea eskatzen dugu.

  - BBKrekin uste dut ez dugula harremanik izango, ikusita aspaldi eskatu genituela datu batzuk eta oraindik ez dugula erantzunik jaso etxe-hutsen eta etxe-kaleratzeen inguruan.

  - Visesako etxeen inguruan mozio bat onartu zen. Jakin nahi dugu ea zerbait egin den gai honen inguruan.

  - Sindikatu batek bilera bat eskatu du Alkatearekin, igerilekuetako tabernan dagoen arazo baten inguruan hitz egiteko, eta zain daude.

- Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Aralarrek esandakoari buruz, belar artifiziala dela eta, esan behar diot, bai, erratuta dagoela. Belar artifizialaren gaia, beharrizana eta abar, hainbat aldiz pasatu izan da Durango Kirolakeko batzordetik, eta uste dut Aralarrek badaukala bere ordezkaria batzorde horretan.

alegaciones, y creíamos que se habría hecho la adjudicación. Sin embargo, todavía no se ha llevado a cabo la adjudicación, pero nos gustaría saber si ya están hechos todos los trámites necesarios.

Nos gustaría saber si, en relación a Kirolene, habéis contactado ya con el Gobierno Vasco y con Kirolene, y si es posible ofrecerle un edificio a Kirolene antes de que acabe la legislatura.

- Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: En su día, no se aceptaron las cuentas generales porque se solicitó un informe externo; queremos recordar que seguimos a la espera de ese informe.

  - Hemos solicitado en más de una ocasión que, a fin de dar a conocer la situación económica real de este Ayuntamiento, se celebren unas jornadas abiertas a la ciudadanía.

  - Visto que la mayoría de los usuarios de la línea Durango-Gasteiz son de Durango, solicitamos que se haga una reunión como la que se organizó hace algunos meses.

  - Creo que no tendremos relación con la BBK, puesto que hace tiempo solicitamos algunos datos sobre desahucios, y todavía no hemos recibido ninguna respuesta.

  - Se aceptó una moción sobre las viviendas de Visesa. Nos gustaría saber si se ha hecho algo al respecto.

  - Un sindicato solicitó una reunión con la Alcaldesa para hablar sobre un problema en el bar de las piscinas, y siguen esperando su respuesta.

- Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En cuanto al tema mencionado por Aralar sobre el césped artificial, debo contestarle a su Portavoz que sí, que está equivocado. El tema del césped artificial, si es necesario, etcétera, ha sido tratado varias veces en la Junta de Durango Kirolak, y creo que Aralar tiene un Portavoz en dicha Junta. De todos

Dena den, ez dakit Herriko Tabernatik zerbait agintzen den edo ez; guri Batzokitik ez digute ezer agintzen, guk eztabaidatu egiten ditugu gauzak eta gehienbat gauza ideologikoak izaten dira.

Geldikinei buruz Aralarreko bozeramaileak erantzukizunez jokatzea eskatu digu, eta ziurtatu nahi dut erantzukizunez jokatu izan dugula; 2015ean hona etortzen direnek ezin izango dute 2014ko geldikina gastatu urteari ez dagokiolako. Edozelan ere kanpoko txosten hori eskatuta dago, eta eskatu dugu ahalik eta arinen egotea.

Durango-Gasteiz linea dela eta, aurreko egunean aipatu nuen pozez hartu nuela batzarra egiteko proposamena, eta Aralarrek galdetzen du ea tramiteak eginda dauzkadan. Ni ez naiz Aralarren neskamea. Alkatea naiz, eta alkate moduan, pentsatuta daukat zelan egin eta horrek tramite batzuk eta prozesu bat dauka.

Kirolene: hirigintza batzordean eman zen honen berri.

Bilduk aipatutako sindikatuarekin bilera: zain nago momenturen bat ateratzen dudan bilera egiteko, bitartean batu egin naiz gainerako langileekin. Arazoa langile batekin sortu da; entzun ditut beste langile batzuen bertsioak eta orain asmoa da sindikatuekin batzea.

modos, no sé si reciben órdenes de la Herriko Taberna. A nosotros no nos ordenan nada desde el Batzoki; nosotros debatimos los asuntos, y se trata, sobre todo, de asuntos ideológicos.

En cuanto al tema del remanente, el Portavoz de Aralar nos ha pedido que actuemos con responsabilidad, y quiero confirmar que así lo hacemos; los que vengan en 2015 no podrán gastar el remanente de 2014 porque no le corresponde a ese año. De todos modos, ese informe externo ya ha sido solicitado, y hemos pedido que se elabore cuanto antes.

En lo referente a la línea Durango-Gasteiz, ya manifesté mi satisfacción ante la propuesta para realizar una reunión, y Aralar me pregunta si he hecho los trámites necesarios. Yo no soy la criada de Aralar. Soy la Alcaldesa, y como tal, ya he pensado cómo hacerlo, y ello conlleva unos trámites y un proceso.

Kirolene: se habló sobre este tema en la Comisión de Urbanismo.

Reunión con un sindicato mencionada por Bildu: estoy esperando a ver si tengo un momento; mientras tanto ya me he reunido con los demás trabajadores. El problema ha surgido con un trabajador; he escuchado las versiones de los demás trabajadores, y mi intención ahora es reunirme con los sindicatos.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:00ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:00 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.